Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2386

128/2010 DEKRETUA, apirilaren 27koa; honen bidez adierazten da Arabako Foru Aldundiak lehenbailehen hartu behar dituela Urturiko zeharbidean A-4154 errepidea egokitzeko behar diren ondasunak eta eskubideak, haiek nahitaez desjabetzeko.

Diputatuen Kontseiluak, 2009ko abenduaren 22an, 865/2009 zenbakidun Erabakia onartu zuen. Erabaki horrekin, egitasmo hau gauzatzeak ukitzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda handitu egiten da: «Urturiko zeharbidean A-4154 errepidea egokitzeko egitasmoa». Aurretik, azaroaren 18ko 817/2008 Erabakiarekin, egitasmo horrek ukitzen dituen ondasun eta eskubideak hartu egin behar direla adierazi zen. Egitasmoa eta desjabetzeko hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda banakatua jendaurrean jarri da.

Halaber, Diputatuen Kontseiluak, 2009ko abenduaren 22an, egitasmoak ukitzen dituen ondasun eta eskubideak hartu egin behar direla adieraztea erabaki zuen; eta Eusko Jaurlaritzari lanen premiazkotasunaren adierazpena eskatzea, desjabetze-dosierrak ukitzen dituen ondasun eta eskubide horien okupazioa 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluaren arabera egin ahal izateko.

Lehenbailehen hartu beharreko ondasunak eta eskubideak banakatuta eta xehatuta agertzen dira dosierrean jasotako zerrendan, zeintzuk diren jakiteko behar diren datuekin. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen behar izan zenean eta, administrazio-espedientean adierazten denez, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedientea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek hartzea luza ezinezkotzat jotzen da honako arrazoi hauengatik:

A-4154 errepideak bide-segurtasunaren arloan dituen arazoei irtenbidea eman behar zaiela uste da. Egun, errepide hori Urturiko herriko etxebizitzen artetik igarotzen da, ez daude bereizita oinezkoen eta ibilgailuen trafikoa, eta ikuspen gabeko gune nahiz estugune ugari ditu; beraz, zabalkunde bat ematen zaio bide-segurtasuna bermatzeko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2386

DECRETO 128/2010, de 27 de abril, por el que se declara de urgencia la ocupación por la Diputación Foral de Álava, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos afectados por el proyecto de acondicionamiento de la carretera A-4154 en la travesía de Urturi.

El Consejo de Diputados, en fecha 22 de diciembre de 2009, aprobó el Acuerdo n.º 865/2009 de ampliación de la relación de bienes y derechos afectados para la ejecución del «Proyecto de acondicionamiento de la carretera A-4154 en la travesía de Urturi». Anteriormente, por Acuerdo 817/2008, de 18 de noviembre, se declara la necesidad de ocupación de todos los bienes y derechos afectados por el referido proyecto. El proyecto con la relación individualizada de bienes y derechos de necesaria ocupación a efectos expropiatorios se somete al trámite de información pública.

Así mismo, el Consejo de Diputados, en fecha de 22 de diciembre de 2009, acordó solicitar al Gobierno Vasco la declaración de urgencia de las obras a efectos de que la ocupación de los citados bienes y derechos afectados por el expediente expropiatorio pueda realizarse conforme al artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, de 16 de diciembre de 1954.

Los bienes y derechos a los que se concreta la declaración de urgente ocupación han quedado determinados e individualizados con los datos suficientes para su identificación en la relación confeccionada al efecto y que obra en el expediente, la cual, en su momento, fue sometida a información pública, no habiéndose presentado alegaciones, según consta en el expediente administrativo.

Los Servicios Técnicos han observado que no existe obstáculo para la tramitación del expediente.

Se estima inaplazable la ocupación por las siguientes circunstancias:

Se considera necesario dar respuesta a los problemas de seguridad vial que presenta la carretera A-4154. En la actualidad en esta carretera discurre entre las viviendas de la población de Urturi, sin separación física entre trafico peatonal y rodado, con numerosos estrechamientos y sin visibilidad, por lo que se proyecta un ensanchamiento para garantizar la seguridad vial.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f) artikuluan xedatzen denaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio nahitaez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla, adieraztea nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenean: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolamenduari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako egintzak. Goian aipatutako Lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, orduko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari zegokion horretarako proposamena Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea.

Hori dela bide, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2010eko apirilaren 27an egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko Legearen 26.artikuluan xedatutakoari jarraituz, Urturiko zeharbidean A-4154 errepidea egokitzeko burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak Arabako Foru Aldundiak lehenbailehen hartu beharrekoak direla adieraztea, nahitaezko desjabetzea egiteko. Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztu eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea amaitzen duen dekretu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunak Jaurlaritzaren Kontseiluari, dekretua azkenekoz argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, dekretua azkenekoz argitaratu zen egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko apirilaren 27an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.1.f) de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, corresponde al Gobierno Vasco acordar la declaración de urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados por la aplicación de la expropiación forzosa a unidades de ejecución completas, sistemas generales de la ordenación urbanística del territorio o a la de alguno de sus elementos o para la realización de actuaciones aisladas en suelo urbano, correspondiendo al Consejero del entonces Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, de acuerdo con lo establecido en el artículo 26.2 del mismo texto legal, elevar al Consejo de Gobierno la correspondiente propuesta.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 27 de abril de 2010,

DISPONGO:

Artículo único.– De conformidad con lo dispuesto en los artículos 52 de la Ley de Expropiación Forzosa y 26 de la Ley de Ordenación del Territorio del País Vasco, se declara urgente la ocupación por la Diputación Foral de Álava, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos concretados e individualizados en la relación obrante en el expediente instruido al efecto y necesarios para la ejecución del proyecto de acondicionamiento de la carretera A-4154 en la travesía de Urturi.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, podrá interponerse, previamente, en su caso, recurso de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.